

## **Liburutegietan hutsunea sortu du liburuei laguntzeko araubide berriak**

**Lehen, liburutegietarako aleak erosiz ematen zien laguntza Jaurlaritzak argitaletxeei, eta orain dirua zuzenean banatuz, erosketa gabe. Euskarazko obrak liburutegietan egotea bermatu behar da, argitaletxeen iritziz**

JUAN LUIS ZABALA.

Diruaren banaketa Orain batez ere "plan editorialei ematen die bultzada laguntzak Zenbakiak Lagundutako liburuen gastuen %43,28 ordaindu du Jaurlaritzak Herri txikietako liburutegietan igarriko da batez ere hutsunea Ontzat jo dute hala Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak nola argitaletxeetako ordezkariak euskarazko literatur argitalpena laguntzeko abian jarri den araubide berria, baina aitortu dute laguntza sistemaren aldaketak konpondu beharreko hutsunea sortu duela liburutegi publikoen hornikuntzan.

Aurreko urteetan, euskarazko liburu bakoitzaren 300 ale erosten zizkien Jaurlaritzako Kultura Sailak argitaletxeei -salmenta publikorako prezioaren erdia ordainduta-, argitaletxeei bultzada bat ematearekin batera liburutegi publikoak euskarazko liburu berriei hornitzeko. Araubide berriari jarraituz, laguntza zuzena ematen die orain Jaurlaritzak argitaletxeei, erosketarik gabe.

Araudi berria ontzat jo du Jaurlaritzako Kultura Sailak, sail horretako iturriek BERRIari adierazi diotenez, nahiz eta aurrera begira hainbat hobekuntza egin beharko direla onartu. Horietako bat liburutegi publikoen hornikuntzan sortu den hutsunea izango da.

"Penduluaren bestaldera joan gara, adierazi diote Kultura Saileko iturri horiek BERRIari: "Liburu bakoitzaren 300 ale erostetik ezer ez erostera. Orain ikusi beharko da nola iritsi erdiko gunera, benetan beharrezkoa den produkzioak liburutegietan merezi duen presentzia izan dezan.

Kultura Sailak ez du oraingoz hutsunea konpontzeko zer egingo duen erabaki. Aurreratu duen bakarra da edozein erabaki hartu aurretik sektoreko ordezkariak hitz egin eta kontsultatuko duela, eta balitekeela gogoeta amaitu gabe egotea urtearen amaieran.

### **Editoreen kezka**

Hainbat argitaletxe ezagunetako ordezkariak ere ontzat jo dute bide berria. Aurrerapausotzat dauka araubide berria Olatz Osa Elkar argitaletxeko zuzendariak, baina liburutegien hornikuntzan sortu den hutsunea lehenbailehen konpondu beharrezkoa dela dio, eta iritzi berekoak dira Mikel Soto (Txalaparta argitaletxekoa) eta Pello Eltzaburu (Pamiela argitaletxekoa).

"Lehengo sistemak euskarazko liburuak liburutegi guztietan, edo askotan behintzat, egotea bermatzen zuen, Mikel Sotoren iritziz. "Orain, aldiz, liburuazainen esku geratuko da hori, haiei ez baitzaie diru partida handitu euskarazko liburuak eros ditzaten. Arazoa oso larria izan daiteke poesiako eta antzerkiko liburuen kasuan. Sotorekin bat dator Olatz Osa: "Liburutegiak ezin dira utzi euskarazko liburuekin hornitu gabe, soilik beren kabuz erositako euskarazko liburuekin.

Adibide esanguratsu batekin ilustratu du Pello Eltzaburuk dagoeneko hainbat liburutegitan sortu den egoera: "Aurrekoan, Interneten kontsulta egin eta Goierri eskualdeko [Gipuzkoa] hiru herritako liburutegi publikoetan hutsune bera zegoela

ikusi nuen: ez zegoen Bernardo Atxagaren Zazpi etxe Frantzian nobelaren alerik; gaztelaniazko itzulpena, aldiz, hiruretan zeukaten.

Aurreko laguntza sistemarekin kontrakoa ere gertatu izan dela ekarri dute gogora Jaurlaritzako Kultura Saileko iturriek: "Batzuetan liburutegiak lehendik eresia izaten zuen Jaurlaritzaren erosketaren bidez jasotzen zuen liburuaren beste ale bat, eta alferrikako gastua egiten zen.

Beste akats batzuk ere bazituen aurreko sistemak, Jaurlaritzako Kultura Sailaren iritziz: "Batetik, argitaletxeak laguntza jasotako liburu bakoitzaren 300 ale bidaltzen zituen eta erosi egiten zitzaizkion, ordaintzen zen salneurria justua zen kontrolatu gabe; bestetik, liburutegi guztietara kantitate bera bidaltzean, ez zen kontuan hartzen liburu guztiak liburutegi guztietan beharrezkoak ote ziren benetan, hau da, ekoizpenaren irizpidea jartzen zen liburuzainaren hautapen irizpidearen gainetik.

"Liburuzainak egin behar du funtseko liburuaren hautaketa, baina guk ere zaindu beharko dugu benetan beharrezkotzat jotzen dena behar den liburutegira iristea, adierazi du Kultura Sailak. "Dena modu berean tratatzea traturik injustuena izaten da batzuetan.

Zaindu beharreko beste puntu batzuk ere badira, argitaletxeetako arduradunen ustez: literarioak ez diren liburuak -zientzia eta dibulgaziokoak, sukaldaritzakoak...- laguntza jasotzeko aukeratik kanpo geratu direla ekarri du gogora Osak; Sotok, berriz, laguntza eskatzeko epea irailaren amaieran amaitzen dela, eta urteko liburu asko artean ere guztiz taxutu gabe egoten direla orduan.

Idazlearentzat galera zuzena dakar araubidearen aldaketak. Lehengo sistemarekin, Jaurlaritzak liburu bakoitzaren 300 ale erosten zituen, ale haiei zegozkien egile eskubideak jasotzen zituen idazleak; orain, araubide berriarekin, liburuzainek bere liburuaren aldeko aukera egin ezean behintzat, ez du diru hori eskuratuko, eta, gainera, bere liburuak ez da izango liburutegietan.

### **Horniketarako, diru gutxiago**

Laguntzara bideratutako aurrekontuari dagokionez, Jaurlaritzako Kultura Saileko iturriek adierazi dute ez dagoela aurreratzerik arlo horretan aldaketarik izango den. "Aurrekontu orokorren egoeraren arabera hartu beharko da erabakia.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako liburu funtsak berritzeko edo handitzeko ematen den laguntza 832.000 eurotik 737.000 eurora jaitsi da, Jaurlaritzaren aurrekontu murrizketen ondorioz. Laguntza hori orokorra da, ez dago soilik euskarazko liburuaren erosketara bideratua.

### **Diruaren banaketa**

|                       |                       |
|-----------------------|-----------------------|
| Aizkorri 17.617 euro  | Hiria 43.653          |
| Alberdania 60.435     | Igela 8.672           |
| Arrain 18.996         | Lanku 7.204           |
| Artezblai 1.725       | Meettok 2.507         |
| Banaka Media 10.387   | Pamiela 21.641        |
| Desclee de B. 11.335  | Portal Editions 3.578 |
| Edebe 10.044          | Saure 7.791           |
| Edicionesbeta 6.323   | Susa 10.477           |
| Gero-Mensajero 22.695 | Ttarttalo 27.239      |
| Ibaizabal 27.437      | Txalaparta 18.828     |
| Elkar 79.487          | Txinpartetan 7.202    |
| Erein 59.044          | Utriusque V. 13.104   |
| Erroteta 9.309        |                       |
| Euskal Gaiak 7.270    | Guztira: 514.000      |

## **Orain batez ere "plan editorialei ematen die bultzada laguntzak**

Nahiz eta liburu bakoitzarengatik ematen den diru laguntza, araubide berriak "plan editorialei ematen die batez ere bultzada, Kultura Saileko arduradunek azaldu dutenez. Araubide berriaren arabera laguntza sistemak beste abantaila aipagarri bat ere baduelakoan daude: "Horretaz gain, askoz ere irizpide objektiboagoak hartu dira kontuan liburuen kostua baloratzean. Orain artean ez zegoen kostuen konparatiba bat egiterik, eta editoreek askatasuna zuten prezioa jartzeko, kostu errealetan justifikaziorik gabeak. Orain kostuen berri zehatza eman behar dute laguntza eskatzean. Eredu berriak kostuak objektibatzen lagundu digu. Aurrerago, laguntzak banatzerakoan "edukien kalitatea ere aintzat hartzea nahi lukete.

## **Zenbakiak**

514.000 euro banatu ditu Jaurlaritzak 2009ko euskarazko literatur argitalpena laguntzeko. Aurreko urteetako kopuruak hauek dira: 2008an, 614.000 euro; 2007an, 514.000; 2006an, 590.000; 2005ean, 514.000; 2004an, 669.000; 2003an, 699.281.

737.000 euro banatuko ditu aurreko Jaurlaritzak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako liburu funtsak berritzeko edo handitzeko (edozein hizkuntzako liburuak erosiz). Aurreko urteetan, 832.000 euro banatu ziren urtero.

## **Lagundutako liburuen gastuen %43,28 ordaindu du Jaurlaritzak**

### **Argitaletxeek liburu bakoitzaren gastuen berri ematen dute, eta horren arabera da jasotzen duten kopurua**

Guztira, 514.000 euro banatu ditu Kultura Sailak 2010ean. Onuradunak 26 argitaletxe izan dira. Argitaratutako liburuen arabera da argitaletxe bakoitzak jasotako diru kopurua. Laguntza jasotzeko, euskaraz idatzia eta literarioa izan behar du liburuak. Argitaletxeak liburu bakoitzaren argitalpen gastuen berri ematen dio Jaurlaritzari, eta Jaurlaritzak gastu horien zati bat ordaintzen dio laguntza gisa, trukean Jaurlaritzari ezer eman beharrik gabe.

Laguntzarako esleitutako diru kopurua 514.000 eurokoa zenez, eta laguntza jaso duten liburu guztien gastuen batuketara 1.187.610 eurokoa izan denez, lagundutako liburu bakoitzaren gastuen %43,28 ordaindu du Jaurlaritzak bere partidarekin.

Laguntza emateko balorazio batzordea bost lagunek osatu dute. Batzordeko lehendakaria Jose Maria Barandiaran Galdos Kultura Saileko aholkularia izan da, Kultura Sustatzeko zuzendariak izendatutakoa. Eta batzordeko kideak, honako hauek: Arturo Garcia Fiel, Kultura Saileko kultura plangintzarako arduraduna; Marta Merino Ortiz de Landaluze, Kultura Saileko teknikaria, zeinak batzordeko idazkari moduan jardun duen; Ana Urrestarazu Etzaniz, Euskal Editoreen Elkarteak proposatutako ordezkaria; eta Andres Luis Fernandez Seco, Euskadiko Editoreen Elkarteak proposatutako ordezkaria.

Herri txikiak liburutegietan igarriko da batez ere hutsunea Aurrekontu txikiagoak izateaz gain, baliabide gutxiago dute erosi beharreko euskarazko liburuak hautatzeko

Hirietako edo herri handietako liburutegi publikoetan baino askoz ere handiagoa izango da araubide berriak sortutako hutsunea herri txikietan. Batez ere, askoz ere aurrekontua txikiagoa dutelako liburuak erosteko, baina baita ere, langile eta baliabide gutxiago dutenez, oso zaila zaielako erosi beharreko euskarazko liburuen hautaketa zentzuzkoa egitea.

Aurreko laguntza sistemari jarraituz erositako liburuak maiatzean banatu ohi zituen Jaurlaritzak liburutegietan, eta liburutegi handiek ordurako erosiak izan ohi zituzten aurreko urteko liburuetako asko -narratibakoak batez ere-, erabiltzaileen eskaerari erantzun egokia emateko beharrezko zituztelako. Herri txiki askotan, aldiz, euskarazko liburu gehienak -kasu askotan guztiak- Jaurlaritzaren erosketaren ondorioz iritsitakoak izaten ziren. Orain aurrekontuaren zati bat bideratu beharko dute euskarazko liburuak erosteko.

"Erosketarako dugun aurrekontua oso txikia denez, Jaurlaritzak ematen zizkigun euskarazko liburuak laguntza handia ziren guretzat, eta min handia emango digu hemendik aurrera liburu horiek ez jasotzeak, dio Yanira Diaz de Arangizek, Aguraingo (Araba) udal liburutegiko arduradunak.

"Gure kasuan, gutxi irakurtzen diren liburuetan igarriko da batez ere hutsunea, dio Itziar Follak, Bilboko Bidebarrieta liburutegiko arduradunak. "Poesiakoetan, gaietakoetan... Jendeak gutxi nabarituko duela uste dut, baina funts gutxiago egongo da euskaraz.

"Hemendik aurrera aukeraketa zorrotza egin beharko dugu euskarazko liburuen artean, gaztelaniazkoen artean ere egiten dugun moduan, dio Asun Agirianok, Arrasateko udalaren haur liburutegiko arduradun eta Galtzagorri elkarteko lehendakariak. "Hori berez ez da txarra. Gainera, egia da lehen jasotzen genituen liburuetako asko ez genituzkeela erosiko, ez zaizkigulako interesgarriak iruditzen.

Hala ere, aldaketa igarriko dutela uste du Agirianok. "Jakin genuenean Jaurlaritzak guretzat liburuak erosteari utziko ziola, pentsatu genuen aurrekontua handitu edo hutsuneak betetzen laguntzeko bestelako neurriren bat hartuko zuela, baina ez dugu horrelako ezereen berririk.